

OLERKIAK

AURRE APRAIZEN OLERKI BATZUK (1912-2007)

Otoitza eder goizean goiz

(Karmel 1988-2, 106. *Egunen bidean*, 31)

Goiz barriak ez dauka ezetaiko orbanik.
Nire buruak bere ez pentsamentu txarrik.
Mundukeriak goiza lorrindu baiño leen,
Jaunaren agerrear, otoitza ederren.

Izadia aratz dager goi-aalaren zantzu,
egoiaren ikutuz, argi ta margotsu.
Giro daukat biotza ta argi bekokia,
gogoz otoitz eiteko aldi egokia.

Izaki guztietan dantzut, goizetan goiz,
egillea goersten, berein erako otoitz.
Batasun ontan neuk be, buru eta biotz,
eskerrak dagiodaz Jainkoari gogoz.

Goizeko eguratsak gorantz dagi pozez,
otoitz eta eresi, Jaube goretsiez.
Goi-aala eltzen yaku indarrak barrizten:
egunaren nekeak arintzeko kemen.

Goizean goiz, Jainkori esker dagionak,
egun osoa pozik, ezbear zein lanak.
Gaba eltzerakoan, atsedeen osoan,
izten dauz soin ta gogo Jaunaren eskuan.

Illunpean

(Egunen bidean, 36)

Samin ta latzak ziran baitegiko orduak,
goibelean naasita egun eta urteak.
Zauri meeak didarrez, argi illunduetan,
tamaltasunen zidor latzez galtzen ziran.

Erri zuzituaren anots alderraiak
minbera ikutzen zitun ixil beartuak.
Eta zaurien ulu izkeak, zigor-bultzaz,
itxaroge ito oi ziran orma ezoetaz.

Aiotz zorrotzen odol-sundeak ziega
itzeletan liparra astintze eban geraga...
Gaben ixil-etoiak, opagaien billa,
gezna txarrez ebaten eban baitu-sailla.

Ta illunetan bizitzak, dindilizka, sorbatz
meeak noz ikutuko. Iskilluen zarataz
apurtu-didar batzu bee ezkoan tatarrez...
Zuzen-eske Erioa geratzen zan otsez.

Gero, odolezko latzak, gau-bizkarrak beera,
jausten ziran antzika, bularren ganera.
Gogamen apurtuak neketzan galduta
otoitz-zelaian aurki oi eben goi-gentza.

Ta goizaldeak zidar-txatal bat leiotik
 jaurtiten ebanean, odolez bustirik,
 billoizik geratzen zan askatasuna, gaitz
 barrien zain, ezpataz zeartuta, marraiz.

Udako atsalde argiz

(Egunen bidean, 46)

Latsaren gardena leiar-otsez doa,
 oroldizko bidez, arru bakartsuan.
 Atsaldea geldi dago, orri ezeetan,
 usain gozoenaz lurrinduta aroa.

Pitxi politenez apaindu-larreetan
 pozkidatsu dabil bizitza betea.
 Bagilgo eguzki goritan ustea,
 dana dagiri poz, basoko bakean.

Baso ezearen ereski ixiltsuak
 oro dagoz otsez, batasun ezitsuz.
 Egun argi onen poz au neureganduz
 gera beitez neugaz pozkida-lorrazak.

Gudu-sorbatz anker ta baitegi itzelak
 ezarri eustien odolezko ituna,
 argi-zelai ontan ito beite dana,
 ta urrundu begi lats orren ur-lasterrak.

Jasanak jasan, ez dau itun egonenik
 txarkeritik jarei gogoia daukanak.
 Begoz goibel jasan-azo euskuenak:
 ba-dabe egokizun, lena gomutaurik.

Baso-basoan

(Egunen bidean, 68)

Mendien ertzak gorri itxita
joan zan eguzki larria,
egoiaren zelai zabalez
irudimenen eresia.

Berun eta odol ortzia
-une batzuk urdin or-emen-,
txorien egatzadak baiño
gorago gogoaren kemen.

Griñen egarria tatarrez
biotzak gaitzetsita ero.
Kadentasun leun-leunak ixil
inguratu nendun emaro.

Goi-zabaldiz naspildu nintzan
kaden bigun arek bultzauta;
jasten bildur, illun eta itzel
arratsen baso zabal-baltza.

* * *

Barru-bakartade-ezkutuan
zabizan atsegin gardena.
Argi adirazien daustazu
ludiz-andiko zoriona.

Asperena*(Egunen bidean, 73)*

Guda eta sakitu, atxillo-zelai ta
 baitegi itzeletako aro izugarriak,
 esku latzez, girotu zituezan nire
 liraren ari mengal, samur ta minberak,
 eta arrezkero tamal dabil nire biotz
 urratuaren kanta, goiz ta illuntze, basoz.

Irradaka ikus neban odola ixuriten.
 Errubako bizitzak, gogaien pikean,
 illen eta erailten, oiñaze ta nekez.
 Zauri-gordin goiputza, estuntzen artean,
 zornea dariola. Jagiteko itun, lau il.
 Ta errenka luzaro, trapal eta makil.

Etsai gudularien epaitegi zikin
 baten epaitua izan nintzan, ankerkiro,
 aldezle barik, gaizkin zantarrenak baño
 begiramen gitxigoz, kirmen ta zintzoro
 geure aberriarren jokatuz kalte egin
 neutselako, menpera-lanean, aske-min.

Suagen ots erailkoi, ziega itzel eta
 illunetako ormatzar ezkoen oiartzun
 apentzaille ta geure bizkar aulduetan
 ibitu oi zan baitu-zaiñen gorroto itun
 ta gorriak ezarri eustien min-lorraz,
 un-unetaragiño sartuta daukadaz.

Zazpi alegin egin dodaz alai-billa
 gudu-osteko urte urduriotan, baiña
 tamal dantzut oindiño gure amen ziper

ta atsekabeek ixuri-malkoen zotiña
larre odolduetan. Eta errubako
odolaren didarra zuzen-eske dago...

Laztanik samurrena

(Karmel 1954, 44. *Egunen bidean*, 74)

Neure leen jaunartzearen gomutaz

Basoak iñoz ez eben ikus
orduko goiza baizen gardenik.
Goiz jagi nintzan. Alako pozik!
Bizkor nenbillan lendik jainko-min.

Pozez ganezka biotz garbia,
aingeru-kanten samurra aldamen.
Munduko obenak iges lotsarren,
garbitasunak uxatuta urrun.

Orbandu bako zorun ixilla!
Kanpai-otsak bai garden orduan.
Ames gozozko gaba izan neban:
a zan itxartze zoragarria!

Griñen burruka oindiño asau,
zeru zabala nekusan urdin.
Goitar pozkidak barruan zirkin,
gogo-zelaian nenbillan pozez.

Apainkerien deus enekian:
oski barriak, txartestxua aratz.
Gogo-gauzetan nenbillan maratz,
obena yatan bildurgarri itzel.

Aixe bai egun zoragarria!
-Garbi agiri zan ingurua-.
Nire mutiko-gogo gartsua
Jaungoikoagaz besarkatu zan.

Neure bizitzea zear

(Euzko Gogoia 6 (1955, 5-12. zk.) 70. *Egunen bidean*, 76-77)

*Sagartsola'ko Alexander'i
eskolako ta gudako egunen gomutaz.*

Itxaroaren urrun-zorionak ames,
goiz bateko argiak naroa samiñez,
gogai baten neke ta oztopoak katez,
aurrera gogaitzeke, atsekabe-pozez.

Lo netzan, baso ixillen eresia neure,
mutikotako lorik gozoenaz bare,
kezka barik biotza samiñak lekore,
jolasak ames, iren urriña maindre.

Bakea katez zauri zanik enekian.
Adorezko zirkiñik etzan inguruan.
Dei miñik bai entzun oi neban barrenean:
zorion galduaren anotsa irudian.

Gizarteko kutsua barne-errugez urrun,
pozez nenbillan larreen orlegia zorun.
Gaztetxutako ames xauen poza lagun,
enekian gorroto bizi zanik iñun.

Irakasle erdeldunak, amurrua eden,
“Erderaz egin beti”, esan oi euskuen.
“Gaztelera munduko izkuntzarik ederren”.
“Euskerea gogorki zeatuko emen”.

Euskerea zeatu...! Ez da ala geure era?
Etxe ta landa beti, itz naiz otoiz euskera
Bizitzaren zatia geuri kendu gura?
Mutikoaren gentza urratzen asi dira.

Durduxten as daitenak ezin lorik nasai;
berbiztotsak ebizan egutzez olesgai:
askatasun galdua dei ta dei alderrai.
Eneban luzaroan lo gozotan jarrai.

Mendi-erostak arru mindu-zear kaden,
goizalde berun batez itzarri nenduen.
Leen alai ziran otsak, tamal, negar-baten.
Zauri ager zan dana, oindiño odol garden.

Menpetzailleen agiñak inguruan zorrotz,
lo zetzazan geienak, gentza apurtuan, otz.
Askatasun-bidera neban buru-biotz.
Arrezkero eun zauri, biotzean, mingots.

Naiz-ta etsai-gorroto baranoan zital,
gogaien zidorretaz elburua mazal.
Maitasunaren menpe bildurra ixil ta argal,
matxiñada-zantzoak asi ziran zabal.

Egun latzen erdian gogo-indarrak oldar,
kateak eten guraz egin gendun indar.
Arrotzen iskil-otsak, gure erria-zear,
pizkunde-egoak austen asi ziran su-gar.

Nekezko mendi-zelai izan nintzan gudari.
-Eraso gogorretan bizitza opari-.
Gaberdi samin batez, odoletan zauri.
Guduaren erpeetan neke-miña ugari.

Oiñaze ta erio-tokietan gero,
amaika neke jasan nitun egunero!
Orma illunen barruan samiñez luzaro,
gorputza neke-miñez, baiña gogo-giro.

Aberri-zoltxarraren nekeak arantza,
samiña dariola asi yatan biotza.
Gotargien emole basoen ixiltza,
olerkari diardut, il ez dain izkuntza.

Atsekabetsu

(Egunen bidean, 79)

*Guda, zakitu, atxilo-zelai
ta baitegiz gero.*

Geure baserri orlegiko
elizalde maitagarrian
umeak jolasten pozkidaz
ikusi oi dodazanean
ume biurtzen yat gogo
zorun galdua aurkitu guraz.

Odol-ixurtze ta nekeak
illundu eustien biotza;
ezin aurkitu orain inñun
ezelan bere pozkidarik.

Juten naz uri iskanbiltsu ta
jolas zaratatsuetara
zorionaren billa, baiña
alegin guztiak alperrik.

Sartzen naz oian illun eta
eltzen naz mendi-goietara,
ez dot entzuten leen-damuzko
eresi kadena besterik.

Ibaiari be itaundu dausat:
-Pozkidarik emendi igaro...?
Mintzo gardenaz erantzun daust:
-Ez dot ikusi olakorik.

Gaba argitzen zan igetargi-
-txatalari be itaundu neutsan:
-Zorionik ikusi emen?
-Urteak dira ointsuengo
ikus dodala olangorik.

Nora suntsitu ziran, baiña,
nire zoriona ta poza?
-Txoriak aizez pozik dabiz!
Zegaitik nago goibeldurik?
Biurtu idazu poza, Jainko,
odolezko oroia kendurik.

Gogo-barruan

(Euzko Gogoa 6 (1955, 5-12. zk.) 81. *Egunen bidean*, 103)

Urrunen otseztia entzun oi dot sarri;
goizetan pozkidatsu ta illuntzetan kaden,
biotz bakartientzat pozezko asperen:
ots oneik aurtzarotik yataz zoragarri.

Basoen ixillaren gentza atsedentsuan
ari minberaenak biotzak joare.
Izadiak atontzen eresiak bare,
arratsen bakean ta goizen gardenean.

Durundion laztanen egada arrotzetaz,
goien ikutuaren bigunak samurki,
bee-uskerien zarata gozagaitzak kenki,
erun oi nau gentzaren zelai zabaletaz.

Kaden gozatsu baten naas, alderrai nabil,
gogoa zorun-billa goiz ta arrats, zeru-min.
Jai jolasen uskeriz barna asetu ezin:
ots leunotan bizitza ohea deiz dabil.

Atsekabeen arteko zidorren ertzetan,
ertz bako atsegiñen otsak ikututa,
eresi ixillon jarrai senetik urtenda,
poz nabil itxaroen urrun gardenetan.

Otz samiña

(Euzko Gogoia 2 (1951, 11-12. zk.) 1. *Egunen bidean*, 104)

(Baitegian)

Au otza!
Edurra da zara-zara.
Berein oldozkun yatortaz burura:
etxeko sutondoa,
amatxuren itz gozoak,
sendiko berotasuna...
Samin-zauri dot biotza!
Zuriz apaindutako
baso ta mendiak
ezin dodaz ikusi.
Au zoritxarra!
Ormatzar illunak esi,
leio txiki batzuk argi,
au baizen egoera latzik
iñun ezin leite aurki.

Au otza!
Edurra da zara-zara.
Berein oldozkun yatortaz burura...

*Larrinaga'ko espetxean,
1939.eko epaillaren 19an.*

Biotz zauritua

(Euzko Gogoia 3 (1952, 7-8.zk.) 4. *Egunen bidean*, 116-117)

Eun arantzaren mingotsa neukan minbera aldean
baitegi-ate astunak edei ziran aldian.

Neke-eriotzen lezadi illuna!
Amaika erru bako biritza ikusi genduzan,
suntsitzen, tamal, gorrotoaren erpe latzetan.

Gabak itzelak, egunak illun, samin ta minkor.
Zaiñen gorroto ankerra zigor.
Beti artega, biotzak larri,
zein izan ete-eiteken opari.
Kateen astuna sorbalda auletan, anker, eraille.
Aberriaren zoritxar baltza gogoen neke.
Gizantzik barik gengoan, eunka,
ormatzar otzen barru ezkoan, estu-estuka.

Gose, egarri, otz, gaitzaldi, zikin, zorri eta abar...,
zoratuta bat baiño geiago ulu ta negar,
billoiz-billoizik, bee gogorraren ganeen iltzear.
Nagon ixilik!
Ikusi ez daunak ezin sinetsi onelakorik:
olerki onek ez dauko, ba, bat be olerkirik.

Gudu, sakitu, atxilo-zelai eta baitegi,
iru urtetako neke-samiñak bular ausian,
jaioterrira eldu nintzanean,
mendi ta arruen ezea itun ta goibel egoan.
-Lokabetasun apurtuaren mintzo motela!
Zorun galdua negarrez landa ta basoetan.
Amen zotiñen samurra aizean errukigarri.
Eriotzaen lorratzak bide-ertzetan mingarri.

Errubageko odolaren oroi ituna didarrez,
zelai ta tontor, latzikararen ixil goibelez.

Ames-antzeko egia garratz-negargarria!
Sendi ausian erostak baso zauritu-zear.
Etoi bat kezkek estal eziñik,
ardandegirantz yoian, moskor-min.

Kaden egoan jaiotetxea,
baso-arteko bake erailduan: gizaldi-zear
batuta berein ezbear eta pozen ixilla,
belaunik-belaun, zaintzen zitula...

Au mingotsena!
Etxaldean uts-une aundirik idoro neban:
baituta nintzan aldi illunean
bizitzea aitak gal eban gudu-nekeen larrian.

Amaren altzo gozoan laga neban maitero
neke-oiñazez auldu-soiña poz ta atsedem-giro.
A zan a, biotz biren izketa ixil eta aratza!
-Samintasunen arteko poza!
Ai ene, baiña...
Auxe zan azken-sasta sakona.
Osatu ezin izango yatan zauri gordiña:
Nekeek amaren bekoki aratz eta garbian
bizitze-ertzaren ezaugarriak jarrita eukezan.

Zoritzarreko gudu ankerra!
Baitegi itzel ta negargarriak!
Bioen arte il zenduezan, ba,
nire egun alai ta poz guztiak.

Illuntzeko otoitza baserrian

(*Milla Euskal-Olerki Eder* (1954) 772-773. *Egunen bidean*, 123)

Eguzkiak gorde dau urrea arrats-kolkoan;
guztia dago bare illuntzeko bakean.
Ixillaren sakonak ots mendi-ganean;
ots bako eresiak samur biotzean.

Iruntzaren laztanaz basoak lotara.
Izadi-altzoan lokartu dauz eun lora.
Gabari deiz leenengo izarren disdisera:
biotz garbiak aines gozoz, bakez dira.

Larrain ezean artzain-mutikoak samur
diardu txistu joten, zeru zabalak ur.
-Ardi otzanak, entzuz, aldamenean zuur-.
Bere eresian galdu da urdiñetan, zigur.

Neskatxen maite-kantak nozik-beika, zoli;
maiteminduek ezin entzumen estali.
Dunboska ardi galduak ibilli ta ibilli,
ezin dira, beingoan, besteekana itzuli.

Egunaren nekeak suntsi dira larri.
-Gau-egun bitartea gogo-laztangarri-.
Mundu-atsegiñetan barne-pozak urri:
illuntze kadena ames garbien sorgarri.

Eliz-kanpaien otsak garden eldu dira,
otoitz-billa, arru-zear, biotz barneetara.
Eskaritxu bat nekeen amaian onura:
eun gogok batera iru "Agur Mari" gora.

Baso, mendi, solo ta landetatik, sutsu
illuntzeko otoitz leuna, zerurantz ixiltsu.
Gogo onen ordain, beera, bakea gozatsu:
baserriko illuntzea zeru-sundaz kutsu.

Eresi ixilla

(Oleri 3 (1961) 263-264. *Egunen bidean*, 141-142)

Aiangiz kutuna!
Bizkai maitea!
Euskelerri zoragarria!
Zeuekana biurtu arte ez da
osatuko nire zauria!

Matxaku'tik Gorbei-aldera,
Laredo-aldeetik Ermu'ra,
zapartari yabilt gogoia.
Lapurdi'tik Naparroa'ra,
Zubero'tik Bizkai-aldera
nire ames xauen aroa.

Negua daukat gogoan,
negu latza, tropikuko
bero larrien erdian.
Malko goriz lorrindu yat
euskel-mendien ezea,
ta utsik eta legor daukat
barrua, galdu-atsegin
-txatalak betesten, zoli,
goibelen erasoekin.

Berein sastakaiz sastatu
 ta basoen ixillean
 erruki bage eraildua
 bedi aberritik alde
 neban egun apurtua,
 ta jausi bedi gazte poz-
 -gaitzen bizkarretara, ta
 eortzi bedi ixillean,
 erosta ez negar barik,
 erailleen gau baltzenean.
 Eta zantzoka ospatu
 basoen ezean, moxkor
 eta irrada ikustezkorrez
 maiteminduen garaitza,
 argi barria itxaronez.

Minbera nauka odolaren
 deiak gezi zorrotzenakaz
 -bizirik, eta enaz bizi-
 gau ta egun amesak egaz...
 Erraldatzearen mingotsa
 eio eziñik, min biotza.

Baiña oro apurtuko dot,
 -gaikoiak bebiz euren bidez
 eta, Jainkoa lagun, geure
 baso marduletan negarrez
 itxi neban zorion-billa
 joango naz eta, betiko!,
 laztandu, Aiangiz'ko baso
 -basoan, Bizkai orlegiko
 mentarte amesgarrietan,
 -eguzkiak urten baiño leen
 eresi ixillak baranoan...

Itxarokizuna

(Olerti 2 (1960) 204-205. *Egunen bidean*, 162)

Izugarria da gudua!
Itzel ta illuna espetxea!
Ez baita asko atsegiñago
erbestetuen bizitza.

Erri lotuaren semeak
beti urduri eta lorrez,
eun zauri maitasun-landetan,
odolez oiñak, zidor latzez.

Bake-bizitzaren amesak
goiz oro dagie, ozen, ots:
“Jare ikusi nai dodaz mendi
eta aranak. Utikan arrotz!”.

Arbasoen didar sakonak
odolak daukaz irakitan.
Espetxetako neke-gabak
goiz barririk dabe ixilpean.

Irrintzi baten ikutuaz,
kate artean gogo-aske,
urduri mendiz berein gazte,
maitasun-menpe bildurra aalge.

Geure mendien ikurriña
eskuko egin arte ez baita
etengo iskilluen disdira.
Kemenak bebiz alkartuta.

Izugarria da gudua!
Itzel ta illuna espetxea!
Itxaron daigun, uste osoz,
basoen zidor-goizaldea.

Errimiña

(Egan (1962) 201. *Egunen bidean*, 169)

Dei ta dei daukat aberria
dei sarkorrez, egun eta gau.
Ezin daiket atsekabe au
jasan: neke yat atzerria.

Geureekandik asau ta goibel
luzaroan ezin naiteke.
Gomutapen garbiak naukee
galdu-pozkidan gogo-motel.

Euskal-mendien oiartzunak
ulu daragiste tamalen
zaurian, eta arantza arrotzen
ikutuz malkoak biotzak.

Gomuten zidorrak biziro
yoataz, irudimena aize.
Dana arrotza, barruan eze,
aantzigaitz yataz geureen oro.

Geure gurasoak datzazan
lurraren bake orlegia!
Zugandik landa atsekabia
ugari toki guztietan.

Olerkariaren azkena

(*Egunen bidean, 278-279*)

Lauaxeta'ren gomutaz.

Mendi zaurtuen otsak aro itsa inguruan,
gudearen nekean, artega, erria.
Kale ta bide-ertzetan izu ta larria,
odol ta sutauts-sundaz, negarra danean.

Iskilluen sorbatzak gudoïñetan zorrotz,
gudari illen bakean ikurriña odol.
Egontzi ta lerkaiak Erio-zirimol:
biotz nekatuentzat itxaropena otz.

Guda-zantzo ta irrintzi goizalde urratuan,
gudarien kemenak askatasuna ames.
Amen negar-malkoak, suntsituen bidez,
baituen ez-bearrak ditue susmetan.

Egurats odolduan barri txarrak dabiz.
Atxilloen didarrak ixilpean amil.
Etsaien asmuetan gorrotoa dabil:
zapaldu, erail, erre, dana amurru biziz.

Ta an dago olerkaria, otoitzean murgil,
Gasteiz'ko baitegian, eriotzaren zain.
Menpetzailleen irain ta zigorrak bizkar-gain,
neke latzen erdian, baiña adorez, bipil.

Aberriaren neke-zoritxarrak mintzen:
beti abestu eutsan askatasunari.
Augaitik nai dautse eten biziaren ari,
bere erria azkartzeko geratu ez daiten.

Gorrotoa asetzeko erail-gaiak bear,
 iskillu-erpiñetan dabil Erioa.
 Goizalde guztietan norbait jo daroa:
 erru bageen odolak zoli dagi didar.

Gizabide bagako gau apurtuetan
 askatasun osoaz dabiz oiñazeak.
 Gaur bat, biar bestea, daroaz Balbeak.
 Olerkari gaztea dauko, orain, sarean.

Ziega umel ta itsuan, ba-dau gotargia:
 azken-olerkietan barrua ixuri dau.
 (Maitasun-gogapenez izugarritzko gau.)
 Bare dauka gogoa goian ezarria.

Ardura batek mintzen, lortu dau gurari:
 siñiste barik eban eriotza-lagun.
 Bere otoitzai esker jarri da siñistun;
 ez dautse, ba, bildurrik eriotzeari.

Ta eldu bear eban goizalde larriak.
 Zizpak gerturik dagoz eriotzez ordi.
 Urduri erailleak orduari adi.
 Itsukeriak jo dauz olermen-ariak.

Ta izadia illetaz dau, gau eta egunez,
 negarra dariola orri bakoitzetik.
 Gudoiñeko dunbotsak, aserrez, menditik.
 Orban bagako odola didarka tatarrez.

Goizalde larria

(Oleri (1987-1990) 108-104. *Egunen bidean*, 303-304)

Illuna zan nagosi.
Illun baltz eta itzela.
Eriopetuen gogo naigabetuetan
erantzukizun barik itaunak
itoten ziran.

Idatzita dago,
baitegiko orma ezkoetan,
opageientzat epai zorrotza,
eta gertu dagoz suiskilluak
epaitueri begira,
gau baltz eta urratuan.

Begiak zabalik eta ixilik dago
gau illuna,
eta erailleen oiñotsak datoz,
ixiltasuna zapalduz,
burdiña-artera.

Bat, bi, iru, lau...
“Gertu zaiteze ta ala, geugaz,
aize garbia artzera”
irainka dirautse,
lotsa bagako irri ta zarataz.

Abertzaleak dira;
gorrotoaren indarrak baituak.
Eztabe inor zauritu,
maitasuna dabe iskillu,
baiña arerioak biotzean arrak ditu:
ona ikusteko itsu,
besteen xedeak ezin onartu.

Goizaldeak ez dauko errukirik...
Espetxeko ateak zabaldu dira,
burdiñazko ate astun eta sorrak.

Arnasa-ots luzeak entzuten dira.
Tarrantaren otsa.
Ixiltasuna.
Illerriko ormatzar itzelak,
gurutzen gerizetak.
Ustu dabe iskilluek euren gorrotoa.

Illotzak, zuzentasun-eske,
zerura begira;
odol beroa maitasunari deika.

Ixiltasun nabarmenean
amildu zan goizaldea,
odola dariola, negarrez.
Erailléen bularretan
burruka negargarria.

Sendatu, Ama, Euskalerria

(Egunen bidean, 326-327)

Gogai okertu eta
siñismen lorrinduaren
zidor naasietaz,
Zeugana natorkizu, Ama,
deadar, abesti, zotin eta arren:
baso garbien zelai bakartsuetatik
dakartsudazan eskabideak
entzun egidazuz, ba, biotz onez.

Itxaropen galduen aro goibelean,
eskuratu ezindako zorion-billa,
urduri dabil gizarte larritua;
zeruen seme zurtz eta
gaikerien laino-arteana itsutua.
Egizu, Ama, ez dakigula eten
asabakandiko siñismen-lokarri itxaropentsua.

Zaratatsu dabil gaztediaren
arrakasta urduria,
osertzik bakoena garraxi etsigarrietan.
Eta gogo ustuen billa diarduan gorrotoak
lerrenak dagiz, igarri barik
-errukiaren destaiñez-
biotz-urrien bular makalduetan.
Argitu egizuz, Ama, arren,
gure zelai, kale ta bide ertzak,
tokirik izan ez daiten
gorrotoarentzat.

Leen zeure goresmenez,
pozezko kantuz,
alkartzen ziran erriak,
goiz, eberdi ta arrats;
zoriontsu bizi izan giñan
siñismenezko aldi garbietan.

Orain, Jainko bakoena gerizeteak
gorriña ta lorriña edatu ditu,
guztia ondatu guraz, biotzetara,
eta tamal zaukaguz, Ama,
bidekatueri begira.

Betor, ba, Ama, gugana,
zeure errukiaren indarra,

Bizkai'ko zaindari zaitugu-ta.
Osatu ta sendatu egizu, arren,
Artagan-aldetik,
Begoña'ko jauretxe ederretik,
Euskalerrri nekatuaren
samin odoldua,
urrundu daiten,
betiko gugandik,
gogai ta xede lorriñen eraso.

Lerdiak

(Egan (1965) 23. *Egunen bidean*, 336)

Lerdi negargarriak!
Geure basoak goibeltzen dozuezan
illeta-eresi itxusiak!
Arima bagako zugatz tristeak!
Geure bake ezea uxatzen dozuen
tantai arrotz nardagarriak.
Gaztaiñondo, areitz, pago,
ardi ta enpaiduri
kendu dautsezue bizia.
-Suntsituko al-zarie!-
Euskalerrriaren gerizetatzaille lorriñok.
Eten bako negua izadiari
ezarten dautsazuen
bururik, zanik ez biotz bagako
abe iro, gauzeztan illuntzailleok!

Lerdi negargarriak!
Geure basoak illetaz estaltzen dozuezan
longain baltz arbuiagarriak!
Aldi obeagoaren azkorea
agertuko a1-da, zeatz garbitzeko
gure basoen gau-aldia.